



SINATZAILEA

Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan  
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI  
2025/11/04

NIF: P3105000H

Espedientea 254191T

2025eko urriaren 30ean Tokiko Gobernu Batzordeak egindako ohiko bilkuran, bertzeak bertze, honakoa erabaki zuen:

**4.2** Iruritako 14. poligonoko 422. partzelako Aroz Berriren izenean egindako erosketa-eskaintza ikusi da. Kontuan hartuta partzela horrek funtsezko erabilera duela Zaldubiako industrialdean kokatutako enpresen aldetik. Udal idazkariaren 2017/05/30eko txostena aztertu da, eta kontuan hartu dira Nafarroako Toki Entitateen ondasunak arautzen dituen legerian jasotako aginduak eta, zehazki, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretua, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- Baztango 14. poligonoko 422 lurzatian besterengarritasuna deklaratzeko, eta espedientea jendaurrean jartzea hamabost eguneko epean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Besterengarritasun-adierazpenaren helburua enkante bidezko salmenta da.
- 2.- Baztango 14. poligonoko 422 lurzatia enkante publiko bidez saltzeko plegu arautzailea onartzea, beharrezko izapideak egin ondoren.
- 3.- Baliozko eskaintza bat lortu ondoren, seikatu egingo da.

**HELEGITE EDO ERREKURTSOEN ARAUBIDEA:**

Akordioa honen kontra honako helegite hauetako bat jartzen ahal da aukeran:

- a). BERRAZTERTZEKO helegitea, egintza egin duen organuan berean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, HILABETE BATEko epean.
- b). ADMINISTRAZIOAREKIKO helegitea, Administrazioarekiko Auzietarako Auzitegian/Aretoan, dagokion bezala, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, BI HILABETEko epean, edo
- c). GORA JOTZEKO helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aitzinean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, HILABETE BATEko epean.

*En la sesión ordinaria celebrada por la Junta de Gobierno Local el día 30 de octubre de 2025, se adoptó, entre otros, el acuerdo siguiente:*

**4.2** *Vista la oferta de compra realizada en nombre de Aroz Berri de la parcela 422 del polígono 14 en Irurita. Teniendo en cuenta que la citada parcela tiene un uso fundamental por parte de las empresas ubicadas en el polígono de Zaldubia. Visto el informe del secretario municipal de fecha 30/05/2017 y atendiendo a las prescripciones contempladas en la legislación reguladora de los bienes de las Entidades Locales de Navarra y en concreto a la Ley Foral 6/1990 de Administración Local y el Decreto Foral 280/1990, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra. La Junta de Gobierno Local acuerda:*

- 1.- *Declarar la alienabilidad de la parcela 422 del polígono 14, de carácter patrimonial y someter el expediente a información pública durante el plazo de quince días, con publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Navarra. La finalidad de la declaración de alienabilidad es la venta por subasta.*
- 2.- *Aprobar el pliego regulador para la venta de la parcela 422 del polígono 14 mediante subasta pública previo los trámites necesarios.*
- 3.- *Una vez obtenido una oferta válida la misma se someterá a sexteo.*

**RÉGIMEN DE RECURSOS:**

Contra este acuerdo cabe interponer optativamente uno de los siguientes recursos:

- a). *Recurso de REPOSICION ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución.*
- b). *Recurso CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el Juzgado/Sala, según proceda, de lo Contencioso Administrativo en el plazo de DOS MESES desde el día siguiente al de notificación de esta resolución; o bien,*
- c). *Recurso de ALZADA ante el Tribunal Administrativo de Navarra dentro del MES siguiente a la fecha de notificación de esta resolución.*

Alkateak OI / idazkaria Vº Bº El alcalde / el secretario



SINATZAILEA

Baztango Udal Idazkaria  
JULEN URBIOLA LOYARTE  
2025/11/04

BAZTAN

Egiaztapen-aseguru kodea: 7DAA AEMR VCRD D2QW 9VQC

**2025/10/30eko TGB, 4.2: ENKANTEA, ZALDUBIAKO LURSAILA - SEFYCU 237723**Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.baztan.eus/> 1tik 1 orrialdea